

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

453/2025 Foru Agindua, irailaren 3koa. Arabako Amurrioko eta Aiarako udalerrietako lurzoru urbanizaezinean instalatu nahi den Mendi parke eolikoaren plan berezia onesteko prozeduraren hasiera

Lurralde Oreakaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren maiatzaren 8ko 275/2025 Foru Aginduaren bidez, ebatzi zen Mendi Parke Eolikoaren eraginpean dauden Amurrioko eta Aiarako udalei bi hilabeteko epea ematea akordio bat erdiesteko, zeinaren bidez haietako batek bere gain hartuko baitzituen planaren izapidetzea eta onespena. Foru agindu hori 2025eko maiatzaren 23an jakinarazi zitzaion Amurrioko eta Aiarako udalei.

Aiarako Udalak, alkatetzaren 2025eko uztailaren 23ko 437 Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiari jakinarazi zion ez zela akordiorik lortu Amurrioko Udalarekin Mendi parke eolikoaren plan berezia izapidetu eta onesteko. Era berean, udal arkitektoaren 2025eko uztailaren 15eko txostena helarazi zuen, bai eta Aiarako Udalak 2025eko ekainaren 17an aurkeztutako alegazio idazkia ere, eragindako administrazioei egindako kontsulten izapidean eta Mendi parke eolikoaren proiektuaren aurretiazko administrazio baimenaren eta ingurumen inpaktuaren adierazpenaren eskaeren jendaurreko informazioaren izapidean. Alegazio horietan justifikatzen da parke eolikia bateraezina dela udaleko hirigintza plangintzarekin eta lurralde antolamenduko tresnekin. Azkenik, Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio Aiarako Udala izan dezala administrazio interesdun espedienteko izapide guzti-guztietan, eta ematen diren izapide eta ebazpen guztiak jakinaraz diezazkiola. Ebazpen hori 2025eko uztailaren 24an jakinarazi zitzaion Arabako Foru Aldundiari.

Amurrioko Udalak ez du idazkirik aurkeztu Arabako Foru Aldundian.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lurralde Oreakaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak du aztergai den espedientea ebazteko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauan eta Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legeingintzaldirako zehazten duen diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2/2006 Legearen 97.1 artikulua adierazten du plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoarekin bat etorri egin, izapidetu eta onetsi behar direla. Gainera, 95.1 artikulua ezartzen du plan partziala egitea, printzipioz, udalei dagokiela eta pertsona fisikoek edo juridikoek ere egin dezaketela.

Ez dago 5/1998 Legearen 4.2 artikuluan jasotzen zenaren antzeko erregulaziorik 2/2006 Legean. Hartan zehazten zen udalaz gaindiko plan partzialak eta bereziak direnean, hasierako eta behin-behineko onespena emateko eskumena, eraginpeko udalerrien arteko akordiorik egon ezean, dagokion foru aldundiari dagokiola, lurralde historiko desberdinetako udalerriei eragiten dietenean salbu. Halakoetan, eskumena Eusko Jaurlaritzarena da.

Lege hutsune hori judizialki konpondu da 2/2006 Legearen 92. artikuluan plangintza orokorra bateragarri egiteko ezarritako eskumen arauak analogiaz aplikatuz udalerrri bati baino gehiagori eragiten dieten plan bereziei.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 92. artikulua bateragarritasun plana egiteari, izapidetzeari eta onesteari buruzkoa da, eta hartan jasota dago foru esku hartzea egongo dela bakar-bakarrik eraginpeko udalerriek horretarako akordiorik lortu ezean:

“1. Hirigintzako antolamenduko planak udalerri bateko lurzorua baino gehiago hartzen duenean, eragindako toki entitateetako bakar batek egin ditzake formulazioa eta izapideak, hala badagokio, udal guztien artean iritsitako akordioaren arabera.

2. Akordiorik ez badago, foru organoak –arazoak lurralde bakar bati eragiten badio– edo autonomia erkidegoko organoak –lurralde bati baino gehiagori eragiten badio– bi hilabeteko epea ezarriko du akordio hori lortzeko. Epe hori amaituta akordiorik lortu ez bada, foru administrazioak edo autonomia erkidegokoak, dagokionak, bateragarritze plan bat egin, izapidetu eta onetsiko du. Izapideetan, entzunaldia eskainiko zaie arazoarekin zerikusia duten toki entitateei”

Mendi parke eolikoaren plan bereziaren eraginpeko udalerriek ez dute erabaki bat lortu, izapidetu eta onets dadin. Ondorioz, Arabako Foru Aldundiari dagokio plan berezia izapidetzea eta, hala badagokio, onestea.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Green Devco Energy 5 SL sozietateak formulatutako Mendi parke eolikoaren plan berezia izapidetzeko eta onesteko prozedura hastea.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiaren ingurumen organoari eskatzea hasiera eman diezaiola Mendi parke eolikoaren plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedurari, eta espedienteaz kontsulta egin diezaiela eragindako administrazio publikoei eta interesdunei, bat etorri ingurumen ebaluazioari buruzko legerian jasotakoarekin.

Plan bereziaren zirriborroa eta hasierako agiri estrategikoa interesdunen eskura daude Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren bulegoetan, jendearen harrera ordutegian, eta <https://web.araba.eus/eu/hirigintza/parke-eolikoaren-plan-bereziak> web orrian.

Hirugarrena. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila.

Laugarrena. Ebazpen hau Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoari, Green Devco Energy 5 SLri eta Amurrioko eta Aiarako Udalei jakinaraztea.

Bosgarrena. Foru agindu honek izapide egintza ez-kualifikatuaren izaera du, eta beronen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 3a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA